

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO ERRIOXAKO UR PARTZUERGOA

#### **Hasierako onespena ematea ur hornidura eta hondakin uren tratamendu zerbitzuaren prezioak arautzen dituen ordenantza aldatzeari**

Arabako Errioxako Ur Partzuergoak, ohiko batzar orokorraren 2020ko ekainaren 12ko erabaki bidez, onetsi zuen ur hornidura eta hondakin uren tratamenduagatik ordaindu beharreko prezioak arautzen dituen ordenantzaren 7.1.2 epigrafea aldatzea (ALHAO, 22. zk.a, 2020ko otsailaren 24a). Hona hemen puntu horrek aurrerantzean izango duen testua:

7.1.2. epigrafea. Hodi nagusira isuritakoak HUAN alde aurretik arazteko zerbitzua: 4,834 euro/metro kubo.

Bat etorri Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoarekin, jendaurrean jartzen da, interesdunek aukera izan dezaten espedientea aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak idatziz aurkezteko, hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; erabaki hau behin betiko onartutzat joko da erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Guardia, 2020ko ekainaren 17a

*Lehendakaria*

**JUAN JOSÉ GARCÍA BERRUECO**